



EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 27koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, 2019ko abenduaren 3ko Ebazpena aldatzen duena. 2020ko maiatzaren 25eko ebazpen honek bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko jarduerak egiteko uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan araututako laguntzen deialdian emandako dirulaguntzak gauzatzeko eta justifikatzeko epeak luzatzen ditu.

2019ko abuztuaren 6an argitaratu zen Hezkuntzako sailburuaren 118/2019 Dekretua, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko laguntzak arautzen dituen.

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko uztailaren 30eko Agindua, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen deialdia 2019rako egiten duena, 2019ko irailaren 2an argitaratu zen.

Agindu honen 2. artikuluan xedatzen denez, diruz lagundutako jarduerak eskabidea aurkeztu den egutegiko urtean hasi beharko dira eta hurrengo ekitaldiko uztailaren 31ra arte garatu ahal izango dira.

Era berean, 118/2019 Dekretuaren 18.1.b artikuluan, ebazpenean jasotako jarduera guztiak amaitzen direnetik bi hilabeteko epea ezartzen da azken memoria eta emandako dirulaguntzaren justifikazio ekonomikoa aurkezteko.

2019ko abenduaren 10ean, erakunde eskatzaileei jakinarazi zitzairen Lanbide Heziketako sailburuordearen 2019ko abenduaren 3ko Ebazpena, deialdi honetan aipatutako laguntzak emateari buruzkoa.

Dirulaguntza hori emateko, ezarritako epeetan bete beharko da diruz lagundutako jarduera egiteko betebeharra, bai eta haren justifikazioa ere (2019ko uztailaren 30eko Aginduaren 2. artikulua eta 118/2019 Dekretuaren 18.1.b artikulua).

Koronabirusak eragindako pandemia-egoerak eragotzi egin du erakunde onuradunen jarduera behar bezala garatzea, eta, beraz, baliteke horietako batzuek zailtasunak izatea deialdiaren barruan hasitako proiektuak amaitzeko.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan premiazko neurri osagarriak onartzen ditu. Bere 54. artikulua 1. zenbakian honakoa ezartzen du: dirulaguntzak emateko prozeduretan, dirulaguntzak eta laguntza publikoak deitu eta emateko agindu eta ebazpenak aldatu ahal izango dira diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epeak luzatzeko, eta, hala badagokio, jarduera hori justifikatu eta egiaztatzeko eta hau guztia nahiz eta oinarrietan ez jaso. Agindu eta ebazpen horiek dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan ezarrita eta 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartzen den momentuan jadanik emanda egon behar dute.





Horregatik guztiagatik, alarma-egoera indarrean dagoen bitartean diruz lagundutako jarduera egitea eta justifikatzea zaila denez, eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko deialdiaren organo kudeatzailea gaitua izan denez, ebazpen honen bidez dirulaguntza emateko 2019ko abenduaren 3ko Ebazpena, Lanbide Heziketako sailburuordearena, aldatzen da, dirulaguntza gauzatzeko eta emandako dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epeak luzatzeko. Ondorioz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. - Aldatzea Lanbide Heziketako sailburuordearen 2019ko abenduaren 3ko Ebazpena, zeinaren bidez ebazten baita erakundeei dirulaguntzak ematea bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak egiteko, eta, honela, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea 2020ko irailaren 31ra arte luzatuko da.

Bigarrena. - Aipatutako luzapena gorabehera, proiektua amaitzen duten edo amaitu duten erakunde onuradunek edozein unetan aurkeztu ahal izango dituzte dagozkion justifikazioak, epearen luzapena amaitu baino lehenago, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko Nire Karpeta atalaren bidez bidalita.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 27an.

Lanbide Heziketako sailburuordea.

Jorge Arévalo Turrillas